

itzulpena: Angel Erro

Enjiv Dickinson





**Munduko
Poesia
Kaierak**

Emily Dickinson

itzulpena: ANGEL ERRO

 **Susasa** literatura

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

- © Emily Dickinson
- © itzulpenarena: Angel Erro
- © edizio honena: Susa

2014ko urria

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Emily Dickinsonen poesiara estreinakoz hurbiltzen dena berehala ohartuko da, lehen lerroak irakurri bezain laster, poeta bakan baten aurrean dagoela. Ez da Dickinsonen lana sobera ezagutu behar lerro horiek hark idatziak direla jakiteko. Originaltasun eta indar berdingabea duen poeta dugu, poesia anglosaxoiko —eta are munduko poesiako— figura gorenetakoa bat. Harold Bloom kritikariaren arabera, Dickinsonen adimena hain da apartekoa irakurlea beti sentitzen dela txiki, hasiberri, haren poemak irakurri bitartean.

Izan ere, Dickinsonen poesiaren ezaugarrietako bat zailtasuna da; ez da ulerterraza, besteak beste, ahots indibidual hain indartsu horri jarraiki, topiko oro ekiditen ahalegintzen delako tai gabe. Alabaina, horrexek egiten du halaber hain garaikide, XIX. mendean idatzia izan bazen ere. Arestian aipatutako adimen eta zolitasun horren kariaz aldarrikatuko zuen, esaterako, egiaren askotarikotasuna (568. poema), urte saldo bat geroago postmodernitatearen leitmotivetako batek esango zuen gauza bera alegia. Badira izan iraganak gogorki jotako poeta eta poemak, ur-

teen poderioz zimur ugariz betetzen direnak, baina hori ez da, inolaz ere, Dickinsonen kasua.

1830. urtean jaio zen Amherst-en, AEBetako Massachusetts estatuko hirian. Bizitza aski bakartua izan zuen eta horren aztarnak erraz asko aurkitzen ahal dira bere poesian. “Bakarrago egon ninteke / Bakar-daderik gabe” diote haren lerro batzuek. Beste gai errepikatuetako bat heriotza dugu, haren zerizana (255. poema), harekiko ezjakintasuna (1462.a), harekiko distantzia (949.a). Bere biografoek diotenez, heriotzarekiko larderia gaztetatik izan zuen; hortik omen dator bizitza osoan izango zuen izaera malenkoniatsua. Dickinsonen erreferentzia literariotzat jotzen da Ralph Waldo Emerson pentsalari eta poeta estatubatuarra, nahiz eta nekez koka litekeen Dickinson inoren jarraitzaile gisa. Bien indibidualismoaren gorazarrea gora-behera, Dickinsonen aiurri poetikoa askoz ere makur eta goibelagoa da. Askiz posible da, bidenabar, bi poetek elkar ezagutu izana Emersonnek Amhersten eman zuen hitzaldi baten ondotik.

Ia mila zortziehun poema idatzi bazituen ere, Dickinson bizirik zela hamabi baino ez ziren argitara eman, denak ere egilearen borondatearen kontra. 1886an hil zelarik, bada, poeta ezezaguna zen haren

inguru murrizetik lekora. Poema sorta mordoa aurkituta, haren ahizpa Laviniak poemok publikatzeko asmoari heldu zion. Hala, 1890. urtean argitaratu zen Dickinsonen lehen liburua, *Poems of Emily Dickinson* (*Emily Dickinsonen poemak*) izenburuarekin. Hango poemak, baina, apur bat moldatuak publikatu ziren puntuazio zeinuei, izenburuei eta zenbait hitzi zego-kienez. Dickinsonen poemen ezaugarri nabarmeneta-koak dira erabiltzen dituen gidoi luze eta maiuskulak, biak ere Angel Erroren itzulpen honetan bere horretan mantendu direnak. Poema guztiak biltzen zituen lehen edizioa 1955ekoa da, Thomas H. Johnson-ek apailatutakoa. Hark erabilitako poemen zenbakera erabili da itzulpen honetan. Parentesi artean ageri den zenbakia Ralph W. Franklin-ek 1998an eginiko edizioarena da, hots, beste edizio kanonikoarena.

Horiek guztiak kontuan izanik, esan gabe doa Dickinson itzultzea balentria izatetik aski gertu dagoen zerbait dela. Ikustea besterik ez dago haren itzultzaileen artean XX. mendeko poeta goren —eta *zail*— bat dagoela: Paul Celan. Dickinson itzultzea soilik, honenbestez, aski lan laudagarria zatekeen. Jarraian duzun Erroren itzulpena, ordea, ez da nolana hiko.

BEÑAT SARASOLA

14 (5)

Etxean ahizpa bat daukat;
Hemendik pezoi batera, beste bat.
Bakarra dago ageri da paperetan
Baina biak dira nireak.

Bata ni etorri bidetik heldu zen —
Eta nire iazko soinekoa jantzi zuen —
Besteak, txori batek bezala, habia
Geure bihotzen erdian eraiki zuen.

Baina hark ez zuen guk bezala kantatzen —
Doinu ezberdina zen berea —
Musika zitzaion bere buruari —
Ekaineko erlastarraren moduan.

Gaur urruti dago Haurtzarotik —
Baina muinoetan gora eta behera
Hari heltzen nion eskutik estuen —
Miliak hala txikiagoturik —

Eta oraindik ere
Haren xuxurlak du
Tximeleta tronpatzen;
Eta oraindik ere
Duela maiatz anitz
Zimeldu liliak ditu begietan

Ihintza nik nuen isuri —
Baina goiza niretzat hartu —
Gaueko izar guztien artean
Bakan hau hautatu nuen —
Sue — betirako!

50 (40)

Ez diot lorategiari oraino esan —
Ez nazan limurtu.
Ez dut Erleari orain aitortzeko
Kemen nahikorik —

Ez dut kalean aipatuko,
Dendek so egingo lidakete bestela —
Hain lotsatia — hain ezjakina den inor
Hiltzeko bezain lotsagabe daitekeelako.

Mendi hegalek — aspaldiko jolastokiok —
Ez dute jakin behar —
Ezin baso maitagarrioi ere konta
Ni zer egunetan joango naizen —

Mahaian txintik ere ez —
Ez jakinaraziko oharkabeen
Gaur norbait abiatuko dela
Misterioaren baitan—

80 (129)

Gure bizitzak suitzarrak dira —
Hain nasaiak — hain hotzak —
Arratsalde bitxi batean
Alpeak deskuidatu eta
Haratago ikusten uzten diguten arte!

Italia dago beste aldean!
Baina bien arteko zaindari —
Itzal handiko Alpeak —
Alpe limurtzaileak —
Betiko eragozpen!

89 (68)

Gauza batzuek hegan egiten dute
Txoriek — Orduak — Erlastar batek —
Haien gaineko Elegiarik ez.

Gauza batzuk geldirik egoten dira
Oinazea — Mendiak — Betikotasuna —
Hauek ez ditut nik ardura.

Batzuek geldirik ere gora egiten dute.
Zeruak araka ditzaket?
Misterioa zeinen bare datzan!

108 (156)

Zirujauek zuhur behar dute
Bisturia hartzeko tenorean!
Ebaki finen azpian
Dardarka dago Erruduna — Bizitza!

Arrastiria ekardazu kopa batean,
Goizaren pitxerrak zenbatu egizkidazu
Eta haietarik ihintzeko zenbat diren konta,
Esadazu goizak noraino jauzi egin duen —
Esadazu zer ordutan lo egiten duen
Urdinaren zabala ehuntzen duen ehuleak!

Abar liluratuen artean
Birigarroaren estasi berrian
Idatz egidazu zenbat nota dauden —
Dortokak zenbat bidaia —
Zenbat kopa partitzen dituen
Zukuaz lizun erleak!

Eta ostadarraren zutabeak nork jaso dituen,
Eta esfera otzanak nork gidatzen dituen
Urdin malguaren zumeetan barna?
Noren eskuek josten dituzte estalaktitak?
Nor arduratzen da gauaren girgileriaz
Apaingarririk ez dadin falta?

Etxe Garden hau nork eraiki zuen
Eta nork bertako leihoak zarratu
Nire gogoak deus ez ikusteko moduan?
Nork utziko dit festa egunean ateratzen,
Arrandia iragankorra,
Urrunera hegaldatzeko tresneriarekin?

Hurrek etxeko Gonbidatuari gabon esan
Eta gogogabe joaten diren bezala —
Nire loreek ezpain ederrok altxatzen dituzte —
Eta oherako atorra janzten.

Haurrak esnatzean saltoka hasi bezala,
Goiza delako bozkarioak harturik —
Nire loreek ere milaka sehaskatatik
Goizari ebaska begiratu eta jauzika hasiko dira.

Ura zer den egarriak irakasten du.

Lurra — igarotako Itsasoak.

Bozkarioa — Saminaldiak —

Bakea — Batailen omenak —

Maitasuna, Lurpeak —

Txoriaren nolakoa, elurrak esaten du.

Urteak igaro direnean
Ebanozko Kutxan begiratu —
Udek gainean ezarri duten
belusezko errautsa astinduz!

Argitara eskutitz bat heldu —
Papera — dagoeneko — astiak horitua —
Ardoak adina poztu gintuzten
Hitz lausoak erreparasatu!

Akaso tiraderetan Lore baten
Masail zimurtua aurkitu —
Aspaldian, goizalde batean
Esku dotore — gaur joandako — batek bildua!

Ile xerlo bat, gure irmotasun ezak
Ahantzi duen kopeta batekoa —
Agian apaingarri bat —
Modak atzera utzi duena!

Eta gero gauzok bere tokian utzi —

Eta atzera ahantzi —

Ebanozko Kutxa txikia

Guri ez balegokigu bezala!

182 (210)

Txantxangorriak datozenean
ez banengo bizirik,
Ogi zatiñoa nire omenez
Gorbata gorrikoari eman.

Lo sakonean ni, eskerrak
Ez badizkizuet ematen,
Harrizko ene ezpaineekin
Saiatzen naizela ohartuko zarete!

241 (339)

Agoniaren itxura bat gogoko dut —
Egiazkoa dela badakidalako —
Inork ez du espasmorik antzeratzen —
Ez egiten hil korroken plantarik —

Begiak bat-batean lausotzen dira —
Eta horixe da Heriotza —
Ezin kopetako perlak itxuratu,
Larrimin arruntak hariztatuak.

251 (271)

Hesiaren beste aldean —

Marrubiak — hazten dira —

Hesiaren beste aldean —

Jauzi egin nezake — nahi banu, badakit —

Hain dira goxoak marrubiak!

Baina — Mantala lohituko banu —

Jainkoak errieta egingo lidake!

Oi, laztana, — uste dut Bera Mutikoa balitz —

Jauzi egingo lukeela — ahal baleza!

255 (315)

Hiltzea — instant bateko kontua da —

Ez omen du minik ematen —

Pittinkako — aienatze hutsa da —

Eta begietatik galtzea gero —

Egun batez — Xingola ilunagoa —

Oihal zerrenda Kapeluan —

Eta orduan goiztiri ederra dator —

Eta laguntzen gaitu ahanzten —

Jada ez dagoen — izaki — mistikoa —

Maite gintuenagatik ez balitz —

Batere nekerik gabe —

Joanen litzateke lotara — lo zerraldora —

265 (296)

Hor Purpurazko Belaontziak diren —
Lilipazko Itsasoetan — leunki kulunkan —
Alegiazko Marinelak — hara-hona dabilta —
Eta gero — Moila lasai gelditzen da!

Burmuinean Hileta sentitu nuen,
Ahaideak joan-etorrian ari ziren
Herrestan — herrestan — harik eta
Adimena urratu bide zen arte —

Eta denak eseri zirenean,
Otoitz bat — Danbor bat iduri —
Jo eta jo hasi zen, nire Burua
Lokartzen zela uste nuen arte.

Eta orduan kutxa jasotzen entzun nituen
Eta nire Ariman zehar kirrinka egiten
Berriro betiko Bota Berunezkoez —
Gero, Espazioak errepikatu zuen,

Zeruak oro kanpaiak balira bezala,
Eta Existentzia belarria besterik ez,
Eta Ni — eta Isiltasuna — Arraza
bitxi eta bakartia — Toki honetan lur jota.

Eta ondoren Arrazoimenean Ohol bat urratu
Eta ni erori — eta erorian — hasi nintzen —
Eta murgilaldi bakoitzean Mundu bat topatu nuen
Eta — orduan — utzi nion ulertzeari.

285 (256)

Txantxangorrienean — hazi naizenez —
Txantxangorria dut Musikarako Irizpidea —
Baina kuku jaio izan banintz —
Horren arabera izanen nire iritziak —
Etxeko Odak — gobernatzan du Eguerdia —
Urrebotoia, loreetan nire gutizia —
Gu baratzean ernatu ginelako —
Baina Britainiar jaio izan banintz,
Margaritari muzin egingo nioke —
Intxaurra baino ez da — Urrirako egokia —
Erortzean Urtaroek
Laster egiten baitute — hala irakatsi zidaten —
Elurraren Margolanik gabe
Negua gezurrezkoa litzateke — niretzat —
Ingalaterra Berrikiro — dakuskit nik gauzak —
Erreginak, nik bezala, baserritarkiro —
arrazoitzen du —

288 (260)

Ez naiz Inor! Nor zara zu?
Zeu ere — ez zara — Inor?
Orduan bi gara? Ez esan
Inori — erbesteratuko gaituzte bestela.

Hau karga — Norbait — izatea!
Igelak bezala — norberaren izena
Aldarrika — gau eta egun —
Miresten zaituen putzu erdian.

Argia bezalakoa —
Modarik gabeko atsegina —
Erlea bezalakoa —
Datarik gabeko — Melodia —

Basoak bezalakoa —
Gordea — Haizea lakoa —
Hitzik gabea — nahiz astindu
Zuhaitzik harroenak ere —

Goiza bezalakoa —
Behin joanda hobe —
Betiereko erlojuak —
Eguerdia — Aldarrika!

Etsipena eta Izuaren arteko
Aldea — Naufragio baten unea
Eta Naufragioaren osteko —
Unearen arteko aldea bezalakoa da —

Adimena leun da — Higidurarik ez —
Busto kopetako begia bezain etsiturik
Ikusi ahal izan gabe — badakielako —

308 (557)

Bi arrastiri igortzen dizkizut —
Eguna eta Biok — lehiatzen ginen —
Nik bi amaitu ditut — eta hainbat Izar —
Hark, bitartean — Bakarra sortu du —

Harena zabalagoa da — baina
Lagun bati esaten nion moduan —
Nirea — erosoagoa da
Esku ahurrean eramateko —

Jolasean dabil zure Arimarekin
Pianista bat Teklekin bezala
Melodiari ekin aurretixe —
Pixkanaka txunditzen zaitu —
Tronpetaren Joaldi zeruzkorako
Prestatzen du zure Izatasun hauskorra
Urrutitik aditutako — doinu leunagoekin —
Gero hurbilago — gero hain geldoak
Ezen Arnasa oneratzeko astia baituzu —
Burmuinak — harrotze-hozkirritzeaz —
Ostots — Autoritario — Bakar bat — jotzen du —
Arima biluzia larrutzen dizuna —

Haizeek Basoak atzaparrekin hartzen dituztela —
Unibertsoa — isilik da —

Limosna eskean egonik
Nire eskale eskuan
Ezezagun batek ezustean
Erreinu oso bat utziko balu bezala —

Ekialdeari galde eginik
Ea Goiz bat ematerik duen
Eta Berak urre eta purpurazko
hesiak irekita, Egunsentiaren argiaz
txikituko banindu bezala —

Igandea batzuek Elizara joanik gordetzen dute —
Nik Etxean geldituta gordetzen dut —
Kardantxilo batekin koroaren orde —
Baratze bat kupulatzat —

Batzuk igandeetan Eliz atorran dabilta —
Ni, berriz, hegalez jantzirik —
Eta Ezkilez Mezetara deitu orde —
Geure Sakristautxoak — kantatzen du.

Jainkoak, apaiz ohargarriak, predikua egiten du —
Eta haren sermoia inoiz ez da luzeegia,
Horrela zerura amaieran joan orde —
Etengabe ari naiz zerura joaten.

Bidexkan behera txori bat —
Nik begipean — hark jakin ez —
Zizare bat orduan erdibitu du
Eta gaixoa du, gordinik, irentsi

Eta gero ondoko belar hostotik
Ihintza edan du —
Aldamenka jauzi egin Hesiraino
Kakalardo bati bidea emateko —

Inguruko guztia arakatu du
Begi ongi arinez —
Iduneko baten Ale izutuak, pentsatu nuen —
Buruko Belusa astindu zuen,

Zuhur, arriskuan denaren moduan,
Ogi apurrak eskaini nizkion
Eta lumak harrotu zituen
Etxera zezaten, hegan —

Arraunak urak zatitzean baino arinago,
Zilarreztatuegiak josita egoteko —
Edo Tximeletak baino, Egunaren ertzetik
Murgiltzean, igerian zipriztinik gabe.

Belarrak du hain egiteko gutxi —
Berde hutsezko biribila —
Tximeletak hazi eta
Erleak entretenitzea ez besterik —

Eta Haizeek hurbiltzen dituzten
Doinu ederrekin egun osoan dantzatu —
Eta eguzkiaren izpiak altzoan eutsi
Eta guztiaren aurrean makurtu —

Eta gauak Ihintz Perlak josiz eman —
Eta Dukesa bat arruntegi
Uzteko moduan apaindu
Elkarren ondoan suertatuz gero —

Eta are hiltzen denean ere — Usain
Hain zerukoetan Mundua utzi —
Lurrean zabaldu espezia apal edo
Nardo zimeltzen hasitakoen eran —

Eta gero Berebiziko Mandioetan bizi —
Eta Egun joanekin amets egin.
Belarrak du hain egiteko gutxi,
Belar izpi bat izan nahi nuke —

360 (640)

Heriotzak esanguratsu egiten du
Begia ohartu gabeko gauzakia
Ez bada Izaki zendu batek
Samurtasunez eskatzen digula

Ikatz-marrazki txiki edo Josi-lanetan
Ohartzeko, esanez
“Hau zen josi zuen azkena” —
Artatsu eta maratz harik eta —

Titarea astunegia suertatu zitzaion arte —
Puntadak gelditu ziren — beren kasa —
Eta orduan hautsaren artean paratu zuten
Armairuaren goiko apaletan —

Badut liburu bat — lagun batek emana —
Non berak arkatzez — han-hemenka —
Irudiztatu baitzituen pasarterik gogokoenak —
Lotan dautza — haren eskuak —

Orain — nik leitzen dudala — ez dut leitzen —
Negarraren etenak —
Suntsitzen baititu marrazki
Konpontzen neketsuegiak.

371 (569)

Plazer — preziatu — eta dekadentea —

Liburu Zahar bat aurkitzea —

Bere mendean ibilitako jantzietan —

Pribilegio bat — nik uste —

Esku agurgarritik heldu —

Eta gure eskuarekin berotu —

Pasarte bat — edo bi — atzera egin —

Gazte zeneko — garaietara —

Haren iritzi xebreak — aztertu —

Elkarren arteko gogoari dagozkion Gaietan

Haren pentsamendua zehazteko —

Gizakiaren Literatura —

Jakintsuei zer interesatzen zitzaien — gehien —

Zer Lehiak zeuden —

Platon — Ziurtasuna zenean —

Eta Sofokles — Gizon bat —

Safo — Neskatila bizia zenean —
Eta Beatricek jantzita zeramanean
Dantek jainkotutako — Tunika —
Mendeak atzera jazotako gauzak

Korritzen ditu — trebe —
Norbera Herrira doan modu berean —
Eta esaten dizu zure Amets guztiak — egiazko zirela

—
Hura bizi izan zen — Ametsen sorlekuan —

Xarmagarria da haren aurrean egotea —
Geldi dadin erregutzen diozu — Liburuki zaharrok
Larrutxezko Buruak astintzen dituzte
Eta horrelaxe — kitzikatzen gaituzte —

Heriotza bat gertatu da Aurreko Etxean,

Gaur bertan izan da —

Jakin dut, horrelako Etxeek — beti —

duten aire goibelagatik —

Auzokideen hara-hona asaldaturia —

Medikuak — alde egin du —

Leiho bat ireki da leka baten antzera —

Brauki — mekanikoki —

Norbaitek lastaira bat bota du —

Haurrak korrika pasa dira aurretik —

Beren baitarako ea hor etzanda — hil den —

Nik galdetzen nuen moduan — txikitan —

Apaiza — nabastarrez sartu da —

Etxea Berea balitz bezala —

Eta — orain — Mindun guztien Jabea

Balitz bezala — bai eta Haurrena ere —

Eta gero meztitzera datorrena —
eta Lanbide ikaragarriko Gizona —
Etxearen neurriak hartzeko —
Segizio iluna egongo da —

Gurdi — eta Xingolekin — laster —
Sinboloa bezain erraza da —
Herri txiki batean —
Zer gertatu den asmatzea —

Bakarrago egon ninteke

Bakardaderik gabe —

Hain nago nire Patuari egina —

Akaso Besteak — Baretasunak —

Eten lezake Iluntasuna —

Eta Gelaxka bete lezake —

Beraren — Sakramentua — barruan

Sartzeko — Tamainan — Txikiegia —

Ez nago Itzaropenera ohituta —

Haren desfile ezta — barnera lezake —

Sufrimendurako atondutako

Tokia profanatuz —

Errazagoa liteke

Huts egitea — Lurra begi-bistan —

Nire Penintsula Urdinera iristea baino —

Gozamenez — Hiltzea —

465 (591)

Euli bat entzun nuen burrunba — hil nintzanean —

Gelako Baretasuna

Bi Ekaitzaldiren arteko —

Airearen Baretasuna bezalako zen —

Begiak inguruan — malkoez lehor —

Eta Arnasari eusten zioten denek

Azken Oldarrerako — Erregea

Agertzerako — behingoz Gelan —

Nire Oroitzak oinordetzan utzi nituen — nitaz

Esleitu gabe zegoen zatia

Laga nuen — eta orduantxe

Euli bat sartu zen tartean —

Burrunba Urdin — lauso sigi-saga horrekin —

Argia — eta nire artean —

Eta gero leihoak itxi zituzten — eta gero

Ez zegoen ikusteko ikusterik —

475 (710)

Patua Aterik gabeko Etxea da —
Hara eguzkitik sartu behar da —
Eta gero Eskailera kentzen da,
Ihesarekikoak — eginak baitaude —

Kanpoan egiten dutenaren ametsak aldatuta —
Hor non Katagorriak jolasean ari diren —
Non Baiak hiltzen diren — eta Astaperrexila —
Jainkoaren aurrean — makurtzen den.

482 (461)

Aurpegi ezta — estaltzen dizugu —
Ez zutaz nardatuta —
Zu gutaz akituta zaudelako baizik —
Gogoan har — orain joaki zarela —
Zure atzetik joanen garela harik eta
Zuk Gure berri — gehiago ez izan arte —
Eta gero — uzkur — etxeratuko garela
Zure berri Ikasten jarraitzeko —

Erakustea aski dugun Maitasun
Eskasari errua egotzita —
Orain — hartu nahi bazenu —
Ugarituta — goxoa — Ehunkoiztuta

486 (473)

Etxeko ezdeusena nintzen —
Gelarik txikiena hartu nuen —
Gauetan, nire Argiontzia, Liburu bat,
Eta Geranio bat.

Isurtzeari uzten ez zion Menda
jaso ahal nuen, eroso jarritz gero
Eta Saskia besterik ez.
Utzidazu pentsatzen — bai, ziur naiz —
ez zegoela besterik.

Ez nuen hitzik esaten — galdetu ezean —
Eta orduan ere — labur eta apal —
Ezin nintzen — ozenki — bizi —
Hainbeste ahalketzen ninduen Zalapartak —

Eta hain urruti ez bazen ere —
Nire ezagunetako batek
alde egitean — askotan uste nuen —
inor ohartu gabe — hil nintekeela —

506 (349)

Ukitu ninduen, beraz bizi naiz
Jakitearren halako egun batean, baimenaz,
Haren bularra haztatu nuela —
Toki mugagabea iruditu zitzaidan
Eta isila, itsaso lazgarriak
Errekei atsedean ematen dien moduan.

Eta orain ez naiz lehengo bera,
Goi arnasa hartuko banu bezala —
Edo Errege baten Tunika ukitu —
Hala nire oinak ere, alderrai hainbeste ibiliak —
Eta nire Ijito aurpegia — Omen eztiagoan —
Antzaldatua orain —

Portu honetan babes baldin baninteke,
Rebeka, Jerusalemera,
Ez litzateke xoratuago itzuliko —
Persiarrak ere ez luke bere santutegian
Bere eguzki inperialera Gurutzearen irudia
Hain asaldatuta jasoko.

519 (614)

Epel zegoen — hasieran — Gu bezala —
Kristalean antzigarra bezalako — Hotz bat
Haraino herrestan gerturatu zen arte
Eszena guztia — itzaliz.

Kopetak Harria kopiatu zuen —
Atzamarrak hotzegi gelditu ziren
Minik sentitzeko — eta begi biziak —
Irristalarien Erreka bezala — hormatu ziren —

Tenkatu zen — hori izan zen dena —
Hotza Hotzari gehitu zion —
Ezaxola ugaldu zuen —
Harrotasuna ez besterik ez bailuen —

Eta are Sokekin jaitsi zutenean ere —
Lasta balitz bezala — ez zuen
Imintziorik egin, ez eragozpenik jarri —
Diamante baten gisa abaildu zen.

Eguerdian bi Tximeleta hegaldatu ziren —
Landetxearen gainean vals bat dantzatzuz —
Ondoren Zeru barnera sartu ziren biak
Eta Eguzki Printza batean pausatu —

Gero — biek Itsaso dirdiratsu batera
Jo zuten hegan — nahiz eta inoiz —
inongo Portuan — ez den
Haien iristearen berririk ezagutu —

Urrutiko Txoriak hitz egin badie —
Zeruzko Itsasoan fragatarik
Edo Salgaiontzirik topatu badute —
Inork ez zidan — niri — deus esan —

537 (631)

Egiaztatuko dut orain — Dударик duenak
Geldi nazala egiaztatzetik — orain —
Utzi alde batera — Eskrupuluak! Heriotzak
Ez du Aukera askorik ematen —

Ibaia Oinetaraino iristen zait —
Oraindik — Bihotza lehor dut —
Oi Maitea — Bizitzak ez ninduen limurtu —
Ahalko luke orduan — Heriotzak? —

Ibaia Bularreraino iristen zait —
Oraindik — Oraindik — Eskuek altxatuta
Aitortzen dute Indar hondarrekin —
Ezagutzen duzu Maitasuna?

Ibaia Ahoraino iristen zait —
Gogoan har — Itsasoak begi
Egarriok irensten dituenean — azkenera arte —
Haiek Zure irrikaz — izan zirela!

547 (648)

Hilzorian den baten begia ikusi dut
Gela osoa behin eta berriz arakatzen —
Lanbrotsuagoa bilakatzen zitzaion
Zerbaiten xerka — bazirudien —
Lanbrotsuago bilakatzen zen zerbaitena —
Eta gero — Lainoa bezain ilun —
Eta gero — Itzalean iltzatuta —
Argitu gabe zer ote zen
Ikustea hainbeste merezi zuen hura.

566 (529)

Tigre bat hil hurren — Egarriak zegoen —
Basamortu osoa arakatu nuen —
Arroka batetik tanta batzuk lortu
Eta nire Eskuan eraman nizkion —

Begi handientsuak — Heriotzaz beteak zituen —
Baina arakatuta — Erretinan
Uraren — eta nire buruaren —
Irudi bat ikusi ahal izan nuen —

Ez zen nire errua izan — ni geldiegia —
Ez zen haren errua ere — hiltzea
Ni haren xerka nenbilela —
Baina hala zen — hor zetzan hilik —

568 (531)

Maitasunetik Guztia ikasi genuen —

Alfabetoa — Hitzak —

Atal bat — gero Liburu handia —

Eta orduan — Errebelazioa amaitu zen —

Baina Elkarren begietan

Ezjakintasun bat nabarmena zen —

Haurtzarokoa baino goragoa —

Eta Bata Bestearentzat umetuta —

Saiatzen ginen esplikatzen

Beste inork — ulertzen ez zuena —

A, hain da Jakite hori zabala

Eta hain askotarikoa — Egia!

581 (436)

Inoiz izan dudan pentsu bakoitzeko
topatu ditut hitzak — Bat izan ezik —
Eta hau — dut nik erronka —
Esku bat ahaleginduko balitz bezala

Iluntasunean bizi diren — Arrazei —
Eguzkia marrazten — Zeurea — nola hasiko?
Dirdaia erakuts daiteke Gorrimin bidez? —
Edo eguerdia — Anil kolorearekin?

598 (514)

Hiru aldiz — banandu ginen — Arnasa — eta Ni —
Hiru aldiz — ez zuen alde egin behar —
Baina behartu zen Hauspo bizigabeari eragiten —
Urek gelditu nahi zuten Hauspoari.

Hiru aldiz — Hodeiek aireratu ninduten —
Gero harrapatu — Pilota banintz bezala —
Eta imintzio Urdinak egin zizkidaten aurpegira —
Eta urrun bultzatu zuten bela bat

Hortik legoa askotara zegoena —
Gogoko nuen begiratzea — pentsatuz —
Hiltzen nintzen bitartean — zeinen atsegina den
Giza aurpegidun Zerbaiti so egitea —

Uhinak baretu ziren — Arnasa — ez —
Haizeak — umeak bezala — lokartu —
Orduan Eguzkiak ene Krisalidari muxu —
Eta ni zutitu nintzen — eta bizi —

605 (513)

Armiarmak Esku hautemanezinekin
Zilarrezko Pilotari eusten dio —
Eta Bere buruaren jiran dantza leunean
Perlazko Haria du — askatzen —

Hutsetik hutsera da aritzen —
Lan ganoragabea —
Gure tapiza bereak ordezkutzen du —
Erdi denboran —

Ordubetea bikain landu ditu
Argizko Kontinenteak —
Gero etxeakoandrearen erratzetik dilindan —
Armiarmaren muga — ahantziok —

613 (445)

Prosa barruan itxi ninduten —
Hurtzaroan Armairuan
Sartzen ninduten modu berean —
“Geldirik” egon nendintzat —

Geldirik! Nire buru barrura begiratu
izan balute — hura iskanbila —
Hobe zuten txori bat goi traiziogatik
Kondenatu balute — Txakurtegira —

Txoriak nahikoa du desira
Eta Izarrak bezain aise
Ezeztatuko du Gatibualdia -
Barre eginez — nik dagidan bezala —

632 (598)

Burmuina — Zerua baino zabalagoa da —
Eta — bata bestearen ondoan jarrita —
Batak du bestea barnean hartzen
Aise — eta baita — Zu ere —

Burmuina itsasoa baino sakonagoa da —
Eta — elkarren ondoan — Urdinez Urdin —
Batak du bestea xurgatuko —
Belakiak — Urontzia — edan bezala —

Burmuinak Jainkoaren pisu bera du —
Eta — biak neurtuta — Libraz Libra —
Alderik egotekotan — Silabatik Doinura
Dagoen berbera topatuko duzu —

650 (760)

Oinazeak — hutsunea du parte —
Ezin gogora daiteke
Noiz hasi zen... edo inoiz
Minik gabeko unerik izan ote den —

Ez du bere burua — beste Gerorik —
Iragana du bere baitan
Pizturik — erne oinazealdi berriak
noiz etorriko.

Goizean goiz esnatu — Txakurra hartu —
Eta Itsaso aldera abiatu nintzen —
Azpiko Itsaslaminak atera ziren —
Niri begiratzera —

Eta Goialdeko — Fragatek —
Kalamuzko Eskuak zabaldu zituzten —
Ni Sagu bat nintzelakoan —
Hondartzan — Hondo joa —

Baina Inork ez Ninduen mugitu — Mareak
Nire Zapata apalak estali arte —
Mantala ere estali — Gerrikoraino —
Eta Gerruntzea ere estali — arte —

Ni irenstekoak egin zituen —
Hala nola ihintzak
Txikori belarra —
Orduan — Ni ere — hasi nintzen oinez —

Eta Hark — Hark jarraitu zidan — hurbiletik —
Zilarrezko haren orpoa nabaritzen nuen
Nire orkatilan — eta gero nire oinetakoetan —
Perlez gainezka eginez —

Harik eta Hiri Irmora iritsi ginen arte —
Non hark ez bide zuen inor ezagutzen —
Eta niri diosala eginez — Jaun airez —
Itsasoak atzeraka egin zuen —

686 (861)

Denborak sendatzen du omen —
Baina Denborak ez du inoiz sendatu —
Benetako mina handiagotzen da
Zainak bezala, urteekin —

Denbora arrangura froga bat da —
Baina deusen konponbiderik ez —
Hala bada, zera demostratzen du
Ez zela inon Gaitzik egon —

Heriotzaren zain ezin nintzenez egon —
Bera adeitsuki gelditu zen nire zain —
Zalgurdiak gu biok ginderamatzan bakarrik —
Gu biok eta Hilezkortasuna.

Oso astiro gindoazen —
Berak ez du presaren berri eta nik
Utziak nituen lanak eta plazerak ere,
Haren Jendetasunaren alde —

Eskola atzean utzi genuen, non Umeak
Liskartzen ziren — Patioan
Labore kontenplatzaileko soroak ere bai —
Sartzen ari zen Eguzkia atzean utzi genuen —

Edo hobeki esan — Eguzkiak utzi gintuen atzean —
Ihintza pausatzen zen, dardarati eta hotz —
Nire Soinekoa Gaza hutsezkoa zen —
Lepoko Zapia — Tul hutsezkoa —

Lur sailaren Tontorra zirudien
Etxe baten aurrean gelditu ginen —
Teilatua ozta-ozta ikus zitekeen —
Erlaitza — Lurraren pare —

Orduz geroztik — Mendeak igaro dira —
Eta halere laburragoa ematen du
Zaldien buruak Eternitaterantz
Susmatu nituen Eguna baino —

716 (495)

Egunak biluzi du — bere burua —
Urrezkoa zuen — Galtzaria —
Gonazpikoa — Purpura hutsezkoa —
Azpiko galtzak — Mundua

Bezain zaharrak — zehazki —
Eta halere Hemisferioan
Erroldaturiko azken izarra
Hura bezain zimurtua dago —

Otoitz egiteko — Jainkoagandik hurbilegi —
Beldurrik izateko — Zerutik hurbilegi —
Mendebaldeko Anderea
Lasai erretiratu da —

Kandela hain leun itzaltzen du
Ñirñira Bosforoko Mastaren Bolan
Kupulan — eta Leihoko Kristalean
Ikusi egin baitaiteke —

739 (737)

Maiz uste izan nuen Bakea heldua zela,
Baina oraindik oso urrun zegoen.
Itsaso erdian Itsasertza ikusi dutela
Uste duten naufragoen antzera...

Leher eginda lehiatzen dira,
— Etsiak ni beste harturik —
Ikusi nahian iritsi aurretik
zenbat Kosta alegiazko dauden.

754 (764)

Bazter batean — zetzan nire Bizitza —
Arma kargatua — harik eta Jabea hortik
Pasa zen Egunera arte — ezagutu Ninduen —
Eta Berarekin eramán.

Eta orain Baso Subiranoetan herrari goaz —
Eta Oreinaren ehizan gabiltza —
Eta mintzo naizen aldiro Haren izenean —
Gertu darantzute Mendiek —

Eta nik irribarre egin eta argi abegikor batek
Argizatzen du berehala Bailara —
Vesubio baten aurpegia iduri —
Beren pozaren erakusgarri.

Eta Gauez — gure Eguna onik eginik —
Nire Jaunaren Burua babesten dudala —
Beraren etsai baten buruko malgua —
Ahate lumakoa — konpartitu izan banu —

Baino hobia da — Etsai itsua ni —

Ez da berriro hingatuko

Nire begirada beilegi — edo Erpuru enfatikoa

Zuzentzen diodan hori —

Bizi ahal banintz ere — Bera baino luzeago

Bera biziko da luzeago — Ni baino —

Nik badudalako erailtzeko ahalmena,

Hiltzearen ahalmenik — gabe.

762 (485)

Ez zen Guztia etorri bat-batean —
Apurkako Erailketa izan zen —
Eraso bat — gero bizirako aukeratxo —
Kauterizatzearen pozbidea —

Katuak menia ematen dio Saguari —
Lasaitzen ditu letaginak
Itxaropenak tronpa dezan adintxo —
Gero xehatzen du hil arte —

Bizitzaren saria — da hiltzea —
Hobe da behingoan izan dadin —
Erdizka hiltzea baino — Suspertzeko gero
Itzaltze jakitunago baterako —

Txoriek lauretan hasi zuten —
Egunsentiaren Perpauza —
Doinu espazioa bezain betea —
Baina Eguerdia bezain aldamera —

Ezin nuen haien indarra neurtu —
Haien ahotsak xahutzen ziren,
Erreka errekarari eman bezala,
Urmaela ugarituko badu.

Lekukorik ez zuten —
Gizaki ausazko bat baizik —
Goizari aurre egiteko —
Etxeko zereginetan —

Ezin nik txalorik —
Egiaztatu hor —
Jainko eta Gizonen
Estasi nor bere aldetikoa —

Seietan, ur jasa konplituia zen —
Ez zen inon janzte edo
Alde egite zalapartarik sortu —
Eta halere banda hegaldatua zen —

Eguzkiak ekialdea beretu zuen —
Egunak mundua menderatu —
Gertatutako miraria
Ahantzi zen, burutu ahala.

804 (860)

Ez zuen Oharpenik egin, guk Aldaketa ikusi bai —
Ez Mezurik utzi, bai Hasperen bat egin —
Noren alde, Denbora ez zen aski izan
Berak zehaztu zezan.

Ez zegoen beroak, Udak distira egin arren
Ez zion hotzak ardura
Nahiz eta Izotza Geruzaz Geruza nekaezin
Pilatzen zitzaion bular gainean —

Ez zuen kuzkurtzeko — beldurrik izan
Herri osoa berari begira zuen arren —
Larritasunari heldu zion sorgor —
Eta begiradei ere eutsi — zuzenki —

Eta Lur arretaz egokituan
Hazi baten antzera landatu zutenean
Udaberri Amaigabea helburu
Eta Muino batek baino ez zionean —

Berak hala nahi balu — itzultzea galarazten —
Eta Gu — erreguka bertaratu ginenean —
Muzin egin zion geure Gonbitari
Ezagutuko ez bagintu bezala —

887 (1094)

Maitasuna txiki egin zaigu, hainbat gauza bezala,
Eta Armairuan gordetzen dugu;
Arbasoen Jantziak bezala,
Aire zahar bat hartzen duen arte.

903 (80)

Nire lorearen barruan gordeko naiz,
Zure loreontzitik desagertzen denean,
Inpentsan, niregatik senti dezazun —
Kasik bakardade bat.

905 (829)

Nire Herrialde — eta Besteen artean —
Itsasoa badago —
Baina Loreek — gure artean negoziatzen dute —
Diplomatikoen antzera.

937 (867)

Urratze bat sentitu nuen Buruan —
Burmua pitzatuko balitzait bezala —
Berriz josten saiatu nintzen — puntadaka —
Baina ez nuen konpontzea lortu.

Arreta handiz lehengo pentsamenduari
Gerokoa lotzen ahalegindu nintzen —
Baina jostura desegin zen Zaratarik gabe
Haril bat bezala — Pirritan eroria.

949 (1068)

Argiaren azpian, oraindik beherago,
Belarraren eta Lohiaren azpian,
Kakalardoaren Gordelekuaren azpian,
Hirustaren sustraiaren azpian,

Besoa iristen den baino harago,
Nahiz eta Erraldoi batena izan,
Eguzki izpia iritsi baino harago,
Nahiz Egun bakoitzak urtebete iraun.

Argia baino urrunago, oraindik urrunago,
Hegaztiaren Arkua baino urrunago —
Kometa isatsa baino urrunago —
Munduaren Burua baino urrunago,

Irudimenak posible duen baino harago
Misterioak ezagutu Lurretik harago —
Aineza Orbita batez zeharka
Hildakoen eta Gure arteko Aldea!

954 (1070)

Ezer galtzen ez delako
Ziurtasun Kimikoak
Zorigaitzean adoretzen du
Ene Fede pitzatua —

Atomoen hazpegiak
Ikustea izango badut
Nola ez izaki burutuak,
Joanda utzi nindutenak!

980 (896)

Purpuraren sasoia — bi alditan da —

Urtaro honetan

Eta Arimak bere burua

Enperadore dazagunean.

1014 (1024)

Antzigarra deuseztatuko bagenu,
Udak ez luke etenik —
Gure esku dago sasoiak
Suntsitu ala jarraitzea.

1035 (983)

Erle! Zure zain nago!
Atzo esaten nion
Zure ezagun bati
Etortzekoa zinela —

Joan den astean Igelak
Itzuli ziren Etxera
Eta Lanean dira dagoeneko —
Txori gehienak ere itzuli dira —
Hirusta epel da eta sarria —

Hamazazpian nire Gutuna
Jasoko duzu; Erantzun, mesedez,
Edo, hobeto, zatoz nigana —
Adeitasunez, Eulia.

1065 (1117)

Zabaldu burdin hesiak, o Herio —
Artalde nekatuak sar daitezen,
Haien balakak ez dira jada aditzen
Haien harat-honatak akiturik —

Zurea da gauetan bareena
Zurea da artegietan seguruena
Gertuegi zaude zure bila joateko
Samurregia, izendatua izateko

1068 (895)

Txoriak joanda, Udan,
Nazio txiki batek —
Belarditik, patetikoki —
Meza diskretua ematen du —

Ez da zeremoniarik ikusten —
Grazia hain da graduala,
Errito goibel bilakatzen baita,
Bakardadea areagotuz —

Eguerdian ematen du antzinakoen —
Abuztua geldiro denean sutan —
Eta Kantika espektrala goratzen denean
Atsedena irudikatuz —

Baretzen doa ez bailu beti Graziarik —
Ez toles gehiagorik Dirdaian —
Eta Desberdintasun Druidiko batek
Nabarmenagotzen du orduan Natura —

1078 (1108)

Heriotza baten osteko goizean

Etxeko zalaparta

Lurrean dagokeen

Egitekorik solemneena da —

Bihotzean erratza pasa

Eta Eternitatera arte

Usatuko ez dugun Maitasuna

Ondo gorde —

1099 (1107)

Kapulua dut estu — Koloreak eragozpen —
Airearen grinaz nago —
Hegal ahalmen apalak du
Nire soinekoa doilortzen —

Tximeleta-indarrak behar du —
Hegal egiteko Gaitasunak
Maiestatezko Zelaiak
Eta Zeruan Hegaldiak dakartza.

Beraz Zantzuaren aurrean asaldatu behar naiz
Eta Sinboloa kalkulatu
Eta akats asko egin, azkenean
Giltza jainkotiarra erdiesten badut —

1104 (1104)

Kilkerrek kantatzen zuten
Eta sartzen ari zen Eguzkia
Eta Langileek banan-banan
Amaitzen zuten Egunaren Jostura.

Erlea desagertua zen Eszenatik —
Eta Espezie galduak bezain urruna
Eta zurrumurru bat bezain zalantzatia
Zegoen Eguerdiaren Jendetza —

Belar apalak ihintzaz gainezka egin zuen
Ilunabarra, kapelua eskuan,
Arrotz nahasi eta adeitsu bat bezala,
Joan ez joan gelditu zen.

Itzeltasun bat etorri zen, auzoko bat bezala,
Jakinduria bat, Aurpegirik, Izenik gabea,
Baretasun bat, Etxeko Hemisferioen gisakoa,
Eta Gaua gertatu zen.

1114 (974)

Inoizko Suterik handiena
Arratsaldero gertatzen da —
Ez du inor, deskubritzean, harritzen —
Inor beldurtu gabe hedatzen da —
Ekialdeko Hiri bat errausten du
eta inork ez du Alarmarik jotzen,
Hiria berreraikiko da Egunsentian
Suaren bazka izateko berriro ere.

1127 (1146)

Egunsentiaren sableek zauritutako
Eguzkien triskantza bezain leuna.

1198 (1199)

Etxea Itsaso leun batek bainatzen zuen
Udako Haizezko Itsaso batek
Eta gora eta behera egiten zuen
Gainaldeak, axolagabe nabigatuz —
Kapitain du Tximeleta
Erlea du Lemazain
Eta Unibertso oso bat
Eskifaia zorioneko.

1278 (1225)

Mendiak altxatu ziren Lainoan —
Ibarrak behean gelditu etenda
Eta Ibaia eta Zerua
Handik hona edo zain, nahieran.

Atsedenean zetzan Eguzkia —
Suzko bere zereginak doi bat
Begien bistatik erretiratu ziren —
Ilunabarrak Gailurra printzaz jantzi zuen,

Eszenario gainean hain goxo
Zen erori Arratsaren Ekitaldia,
Sentitu genuela Ikusezina delakoa
Zeinen genuen hurbileko.

1347 (1364)

Ihesa hain Hitz atsegina da
Gauean maiz,
Beste ikuskizunik gabe,
Buruan darabilt

Ihesa — Sasaki bat da
Non Bihotza barnebiltzen den
Bizitzaren gainerakoa denean
Almena izugarriren batetik jaurtia —

Salbatzailea ikusteagatik —
Ez dago inor salbu —
Horregatik dut nik Burua pausatzen
Hitz leial honen gainean —

1423 (1443)

Dazagudan etxerik ederrena

Ordubetea eraiki zen —

Badakit nork eginda ere bai —

Armiarma eta lore batek —

Parpailez eta Zetazko etxandia —

1431 (1448)

Ornitologian —

Deskribatutako edozein espezie

Baino urrunago dezake hegan

Arimak Erdeinuaren hegaletan —

Haragi lizun hau eramanez

Bere kontrol — hitsetik harago —

Eta ekaitz elektriko betean —

Gorputza — arima da —

Bere buruaren irakaslea —

Zer lan gutxi litzatekeen —

Hau bezalako hariak etetea

Hilezkor bilakatzeko —

1462 (1481)

Ez genekien bizitzekoak ginenik —
Ezta noiz — garen hiltzekoak —
Ez dakigunak — babesten gaitu —
Hilkortasuna eramaten dugu
Guk haututako Jantzi baten moduan —
Erantzera behartzen gaituzten arte —
Bidegabe sartzen delako dakigu Jainkoaz —
Bada berdin bizitzaz ere —

1512 (1548)

Zeharo desagertutako gauza guztiak
Hori — da mugagabetasuna

1519 (1565)

Txikori belarraren zurtoin zurbilak
Belardia txunditzen du,
Eta Negua tupustean
Harridura Marka bihurtzen —

Zurtoinak Pipil dotorea goratzen du
Eta gero Lore deigarri bat —
Hilobia amaitu delako
Eguzkien aldarrikapena.

1520 (1543)

Lore zendu baten zurtoinak
Oraindik du maila isil bat.
Gorte Esmeralda baten mezularia
Mandatu Arroza batekin.

1523 (1546)

Inoiz ez dakigu bagoazela joaten ari garenean —
Txantxetan aritzen gara eta atea ixten dugu —
Patuak — atzetik jarraika — giltzatzen du —
Eta ez gara sekula itzultzen —

1545 (1577)

Biblia Liburu zaharra da —
Mamu Sakratuen iradokizunez
Gizon Zimelduek idatzia —
Gaiak — Betleem —
Paradisua — behinolako Bizilekua —
Satan — Brigada-jenerala —
Juda — Iruzurgile Handia —
David — Trobadorea —
Bekatua — Amildegia gailena —
Besteek aurre egin beharrekoa —
Oso bakarrik daude “sinesten” duten mutilak —
Beste mutilak “galduak” daude —
Ipuinak txio-txioka ari den Narratzailea balu —
Mutil guztiak bertara joanen lirateke —
Orfeoren predikuak xarmatzen zuen —
Ez zuen kondenatzen —

1582 (1610)

Arrosak menturatzen ez diren tokian
Arriskatu nahi izango du ene Bihotzak?
Esploratzaile gorriminok bidaltzen ditut
Etsaiaren mendeko lurak zelata ditzaten.

1593 (1618)

Haizea Turuta baten moduan heldu zen —
Dardaraz Belarraren artean
Eta Beroaren gainetik Brisa Berde bat
Hain adur txarrekoa pasa zen
Ateak eta leihoak trangatu genituela
Mamu esmeralda baten beldur bezala —
Hondamenaren Mokasin elektrikoa
Une horretantxe igaro zen —
Eta alde egin zuen Arbola aztoratuen
Eta Burdin Hesien Andana bitxi batean —
Egun hura — bizi izan zutenek
Ibaietan ikusi zituzten Etxeak lasterka —
Ezkilak bridarik gabe kanpandorrean
Albiste hegalariaok aldarrikatzen ditu —
Zenbat etor daitekeen
Eta zenbat joan
Eta halere Munduak jarraitu!

1619 (1647)

Egunsentia noiz etorriko ez jakinki,
Ate guztiak irekitzen ditut;
Hegal eta lumadun badator, txori izanen da;
Olatuekin baldin bada, itsaso.

1627 (1650)

Eztiaren leinua
Bost axola erleari;
Edozein hirusta du
Goi jatorrikotzat.

1732 (1773)

Nire bizitza bi aldiz itxi zen itxiera aurretik —
Ikusteko dago
Hilezkortasunak agerrarazten didan
Hirugarren gertakizun bat.

Lehenago bitan gertatutakoak
Bezain handia, bezain bururatu ezina.
Partitzea da zerutik dakigun bakarra
Eta infernutik behar dugun guztia.

1742 (1781)

Hildakoengandiko distantzia
Hasieran ezin dugu hauteman —
Sugarrezko urteetan zehar
Ematen du atzera itzul daitezkeela.

Eta gero, guk jarraitzen diegunean,
Gertatua susmatzen hasten gara,
Hain gara lagun min bihurtu
Haien memoria maitearen.

1743 (1784)

Hilobia etxetxea da nire,
Zuretzat “gelak garbitzen” ditut
Egongela txukuntzen dut eta
Tea prestatzen dut marmolezkoa.

Biok laburki bananduta,
Ziklo batez, beharbada,
Betiko bizitza batu dadin arte
Gizarte iraunkorrean.

1750 (1767)

Zoriontsuek darabiltzaten hitzak
Ongi doinu petrala dira,
Baina isilik sentitzen dituztenak
Horiek bai ederrak —

1755 (1779)

Belardia izanen badugu,
Hirusta eta erle bat behar da,
Hirusta bat eta erlea,
Eta asmamena.
Baina erlerik ez badago,
Asmamenarekin aski da.

1765 (1747)

Maitasunaz dakigun guztia da
Maitasuna besterik ez dagoela;
Hori aski da, zamaontziak behar du
Bere lorratzaren tamainakoa izan.